

**YOLANDA ARRIETA  
2015EKO EUSKADI SARIA HAUR  
ETA GAZTE LITERATURAN**

Azaroaren 19an jaso zuen 2015eko Euskadi Saria Yolanda Arrietak, *Karmel* aldizkariko idazleak, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian egin zen sari banaketan. Haur eta Gazte Literatura Saria irabaztera bideratu duen lana: “*Argiaren alaba*” eleberria.

Duela bizpahiru urte, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Euskal Idazleen Elkartek sustatutako programa batean parte hartu zuen Yolandak. Aipatu egitasmoaren jomuga, idazle klasikoak gaurko gazteei hurbiltzea eta ezagutaraztea zen. Horretarako, idazle klasiko bat aukeratu behar izan zuen eta helburua, aukeratutako idazleak Yolandarengan izandako eragina edota Yolandak aukeratutako idazlearengandik jasotakoa jakitera ematea zen. Hau da, idazle klasikoaren eta gaurko idazlearen artean zubia eraikitzea. Beste hitz batzuetan esanda, klasikoa gaurkotu eta klasikotik gaur jasotakoa agerian jartzea.

Arrietak, bada, bere aukera egin zuen: Antonio Mogel Urkizaren biloba, Bizenta Mogel (Azkoitia, 1782 - Abanto, 1854).

«Emakumea izatearekin batera, horren gazte idazteak, eta baserri giroan horren kultua eta ikasia izateak asko erakarri ninduen. Duela 200 urte neska koskor batek, haren osabak la-

gunduta, euskaraz, gaztelaniaz eta latinez irakurtzen eta idazten ikasi zuen Markinan; nik txikitatik ezagutzen ditudan kaletan ibili zen, gainerako emakumeak baserri lanetan zebiltzan bitartean, Virgilioren testuak irakurtzen» aditzera emango zuen Yolandak *Berria* egunkariak liburua aurkeztu zuenean egin zion elkarrizketan.

Irudi horri tiraka, idazlearen inguruan ikertzen hasi zen Arrieta.

Xabier Altzibar ikerlariaren laguntzarekin jaso ditu datu gehienak, hala nola, Mogelek idatzitako testuak eta eskuizkribuak: «errealitatea eta irudimena nahastu ditut nobelan, historia fikzioaren bidez moldatuz», azaltzen du idazleak.

Yolanda Arrietaren kontakizunean, Mirari 17 urteko neska-toa da protagonista; AEBetan bizi arren, primeran daki euskaraz, eta uda batean Euskal Herria bisitatuko du izebarekin. Bertan, Bizentaren ezkutuko egunkaria aurkituko dute, eta haren bitartez ezagutuko dute idazlearen bizitza, denboran bidaiatuz.



Arestian esan bezala, hasieran, idazlearen istorioa 14-18 urte bitarteko ikasleei eskoletan agertzeko helburuarekin hasi zen Arrieta informazioa pilatzen, baina Bizenta Mogelen bizitzan sartzen joan ahala, Yolandaren barruan beste behar bat sortu zen: Bizentaren inguruan osatutako lanak bizitza propioa zuela konturatu zen. Aberatsa. Bakarra garai hartan. Eta ordura arteko literaturan zer esana izan zuen luma baten berri emateko premia sentitu zuen. Eta datu horiek guztiak jaso izanak batetik, Bizentaren azalean barneratu izanak bestetik, eta idazle gaztearen bizitzari indar berezi bat eman nahiak, nobela idaztera eraman zuten.

Luze aritu zen Yolanda lan hau atontzen; lehenbizi, datuak jasotzen. Gero, jasotako hari guztiei lotura aurkitzen. Baita fikziozko bizitza paralelo bat asmatu eta gaur egungo literaturara ekartzen ere. Eta eleberria gure gazteek gustura irakurtzeko moduko tonu, iruditeria eta erritmoan kontatzen asmatu du.

Hendaiako Nekatoenea idazle etxean egin zuen lehenbiziko egonaldia Yolandak proiektu honi gorputza emateko, eta Markinako karmeldarren etxean beste egonaldi bat, liburuari jostorrazaren azken puntadak emateko.

Liburua amaitu, eta pare bat argialetxetara jo arren, ez zuen aurrera egiteko biderik aurkitu. Baina Yolandak, bere baitako ahots sendoak gidatuta, liburua berak argitaratzea erabaki zuen Markinako Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Nekatoenearen laguntzarekin.

*Argiaren alaba* izeneko liburuan Bizenta Mogel euskal idazlearen bizitzara hurbiltzeko proposamena egiten digu Arrietak. Markinan hasi eta Bilboko Abandon amaituko da Yolandak sortutako nobelaren ibilbidea, eta datu antropologiko, historiko, psikologiko eta biografikoak josiko ditu irakurleak Bizenta Mogel bere garaian eta bizimoduan irudikatu dezan.

Bizenta Mogel 1804an argitaratutako *Ipui onac* lanagatik da ezaguna, nahiz eta ez zen izan idatzi zuen lan bakarra. Arrietak *Argiaren alaba* deitu dio, ilustrazioa eta arrazoa euskal tradizioarekin uztartu nahi izan dituelako: “euskara eta ohitura onetan zentratu zela” esanez. Era berean, “ohiko eredu en gai netik jokatzen jakin zuen” Arrietaren hitzetan, eta “barne espazio propioa eraiki zuen bere garaiko emakumea” izan zen.

Yolanda Arrietaren ustetan, “*Zortzi idazle, zortzi unibertso*” elkarrizketa liburuan ere aipatzen duen bezala, idazle bakoitzari bere ekarria ikertu, aztertu eta onartu behar zaio. Hori da, azken finean, euskal literaturaren orrietan jasota geratuko dena. Baina, horretarako, onartu beharra dago. Eta onartzeko, ezagutu beharra.

Bizenta Mogelen kasuan, bi izan ziren bere ekarpenak Yolandaren ustez: batetik, haurrak eta alfabetatu gabeak euskaraz hezteko eta hazteko lehen material pedagogikoa sortu izana eta, bestetik, euskararen kategoria altxatu izana ahozko tradizioetik jasotako kontakizun hutsetik papereko hizkuntza klasikoaren parera. Esandakoez gain, ondoren argitaratu ziren alegi bildumen erreferentzia izan zela dio Arrietak, eta euskal haur eta gazte literaturaren aitzindaria dela.

Yolandari “gauzak lotzea” gustatzen zaio. Izanaren jarioan sinesten du. Iraganaren eta etorkizunaren artean sortu beharreko zubietan. Eta antropologian egindako ikasketek gertakizunen eta pertsonen ekinen zergatiak galdetzera eramaten dute, eta atzokoa (edo izan garena) gaurkoarekin (garenarekin) josita uztea izaten da bere kezka; zubi naturalak atontzea. Bizenta Mogelen bizitzaren, izanaren eta idatzitako gainean egindako azterketak eta ikerketa lanak, Yolandak hain berea duen ahots bateratzailearen bidez, duela bi mendeko emakume idazle gazte baten ahotsa ekarri digu gaur egunera, historia eta tradizioa errazago ulertzeko aukera emanez.

Euskadi Saridunak dioen moduan, “tradizioa, historia bezalaxe, ezer izango bada, etenik gabe, astindu, aztertu eta berregin beharreko zerbait bizia da”.

Zorionak, Yolanda, *Karmel* aldizkarian parte hartzen dugun letra eta klasiko maitale guztion aldetik, apalean utzita genuen idazle bizkaitar honen gainean “argia” egiteagatik. Eta zorionak, berriz ere, premia ikustetik hain zeure egin duzun egitasmo honetan buru-belarri lanean aritu izanagatik, gu guztion gozamenerako.

Zorionak Yolanda!

*Ana Urkiza*